

{ datorrena } **Isidro ESNAOLA**

Ezkerra eta bankuak

Giorgia Melonik eta Matteo Salvinik bankuen ezohiko mozkinen gaineko zerga bat onartu berri dute. «Ez da marjina legitimoa duen zerga bat, marjina bidegabea baizik», esan zuen Melonik. Zehaztasunen ondoren, ikusiko da zertan geratzen den zerga berria. Oraingoan, onartutakoa Sanchezen Gobernuak ezarritako zergaren oso antzekoa da, baita zerga-bilketaren aurreikuspenean ere. Ahaztu gabe, inork eskatu gabe, EBZk txosten kritikoa egin zuela Espainiako zergaren aurka, eta orain antzeko beste bat prestatzen ari omen dela Italiakoaren aurka.

Proposamenaren inguruan eztabaida daiteke, baina atentzio gehien eman didana da erabakiak urduriago jarri zituela pertsona batzuk (ea orain hauek ezkerretik pasatzen zaizkigun) bankuak baino. Erreakzio horrek irudipena uzten du batzuek uste dutela ultraeskuinak dena gaizki eta boteretsuen alde egiten duela, printzipioz. Oso jarrera okerra dela uste dut. Eskuin muturrekoak izateak ez du esan nahi tentelak direnik. Badirudi, manikeismo yankia barneratzen ari garela.

Melonik 169.000 familiari DSBEaren antzeko laguntza kendu berri die, eta konpentsatzeko onartu du bankuei ezarritako zerga berezi hori. Jende arrunta erabiltzen du ultraeskuinak eta kapital handiaren interesak defendatzen ditu –zergaren gorabehera bankuek finantzatu egin dute eta finantzatzen jarraituko dute horrela alderdiek–, baina horrek ez du esan nahi noizean behin kapital handi hori eskuin muturrak jo dezakeenik; erakutsi behar du pobreen interesak defendatzen dituztela.

Sanchezen eta Meloniren zergak antzekoak dira, eta biek ala biek egiten ez dutena zera da: irabazi bidegabe horien iturriari eraso egitea. Irailean, hipoteka duen pertsona bati kuota eguneratzea tokatzen zaiotenean, interesak igoko zaizkio berriro, eta bankuek irabaziak pilatzen jarraituko dute, besteak beste, jendeak bankuetan dituen gordailuengatik ezer ordaindu gabe jarraituko dutelako. Errealitatea da merkatuaz hitz egiten dutela, baina finantzetan ez dagoela lehiaren

antzik duen ezer, eta hori da bankuen botere eta aberastasunaren gakoa, eta gainontzekoon miseria.

Okerrena da mozkinak inbertsio-funtsek eta arrisku-kapitaleko funtsek eramaten dituztela; azkenean, horiek baitira banku handi horietako jabe nagusiak. Beraz, bankuak dirua ateratzen ari zaizkie hipotekadunei, porrot egiteko zorian dauden autonomoei eta fakturak ordaintzen atzeratzen direnei, beharbada Karibeko uharte batean *daiquiri* bat hartzen ari direnei emateko. Ekonomiari inolako ekarpenik egiten ez dioten eta ekonomiatik baliabide kopuru handiak ateratzen ari diren bizkarroiak. Estatu Espainiolean, adibidez, 12.000 milioi baino gehiago irabazi ditu banku handiak lehen seihilekoan; gehien-gehienetan, paradisiko gune horietara joango dira. Honekin amaitzea ez da sozialismo-kontu bat ere; ez da justizia kontu bat soilik, eraginkortasun ekonomiko hutsa da.

Zergak ez du gauza handirik balio gainbalioaren erauzketa hori ahalbidetzen duen sistemari eraso egiten ez bazaio, baina horrek esan nahi du merkatu askatasun zabal hori murrizten duten neurriak hartu

Sanchezen eta Meloniren zergak antzekoak dira, eta biek ala biek egiten ez dutena zera da: irabazi bidegabe horien iturriari eraso egitea

behar direla, alokairuen mugarekin egin zen bezala, eta bankuen kasuan, adibidez, interesen igoerari gehieneko muga bat jarri behar diotela, edo kobratzen eta ordaintzen dituzten interesen arteko aldea mugatu behar dela. Baina neurri horiek agerian uzten dute merkatu lehiakorra existitzen ez den mito bat dela, eta hor hezurra ukitzen da. Izan ere, korporazio handien boterea mugatzeaz gain, bere menderatzearen oinarri ideologikoa zalantzan jartzen du. Edo ezkerrek serio hartzen du kapital handien boterea mugatzea, edo ezkerre, azkenean, bere beldurrek eta lerdotik gutxi duen eskuin muturrak garaituko dute. •